

ZIURTAGIRIA

Tokiko Gobernu Batzarraren erabagia

Jurdana Uriarte Lejarragak, Bermeoko Udaleko idazkari nagusiak, ziurtatzen dot, 2024-07-30(e)(a)n, TOKIKO GOBERNU BATZARRAK erabagi hau hartu dauela:

3.- GIDABAIMENA EUSKARAZ PRESTATU ETA ATERATZEKO BERMEOKO BIZTANLEENTZAKO 2024. URTERAKO DIRULAGUNTZEN DEIALDIA ONARTZEA ETA ZABALTZEA.

Xedea

Gidabaimena euskaraz prestatu eta ateratzeko Bermeoko biztanleentzako 2024. urterako dirulaguntzen deialdia onartzea eta zabaltzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: 2022ko abenduaren 19an, udal Osoko Bilkurak, Diru laguntzen Plan Estrategikoa eta Diru laguntzen Berriazko Oinarriak onartzea erabaki zuen. Erabaki horren iragarkia 2023ko martxoaren 6an argitaratu zen Bizkaiko Aldizkari Ofizialean. Berriazko Oinarri horien artean, gidabaimena euskaraz prestatu eta ateratzeko Bermeoko biztanleentzako dirulaguntzenak onartu ziren (I. eranskina). Bertan ageri dira dirulaguntza honi buruzko xehetasunak.

Bigarrena: Gidabaimena euskaraz prestatu eta ateratzeko Bermeoko biztanleentzako dirulaguntzak eskatzeko inprimakiak prestatuta daude, euskaraz eta elebiz (II. eta III. eranskinak).

Argudioak

Lehenengoa: Diru Laguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 23. artikulua eta erlazionatutakoak.

Bigarrena: Lege bereko II. Xedapen gehigarriaren arabera, eskumena alkateak dauka, baina eskumen hori 2024ko apirilaren 24ko 1886. zenbakidun Alkatetza Dekretuz Tokiko Gobernu Batzarrak dauka eskuordetuta.

Erabakia

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E8001078E100D1L6B7C9G2V9

Sinadurea eta data

MIREN KARMELE MUÑO AARRIGAIN-Idazkari akzidentala - 30/07/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 01/08/2024

EXPEDIENTE ::
2024IDA_ERA_0201

Fecha: 19/06/2024

Lekua: Bermeon

Erregistro unidadea:
Erregistro nagusia

CSV: 07E8001078E100D1L6B7C9G2V9



LEHENENGOA: Gidabaimena euskaraz prestatu eta ateratzeko Bermeoko biztanleentzako 2024. urterako dirulaguntzen deialdia eta eskaera-orria onartzea eta zabaltzea, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean 2020ko uztailaren 8an argitaratutako oinarrien arabera.

BIGARRENA: Deialdi honen publizitatea BDNS datu basean argitaratzea.

HIRUGARRENA: Bermeoko Udalaren webgunean deialdi hau argitaratzea.

Eta honela izan daiten eta ondorio egokiak eragin daizan, ziurtagiri hau idazten dot, erabagia agertzen dan akta behin betiko onespeneren menpean dagoela ohartarazota (Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoa onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 EDaren 206. artikulua arabera), Nadia NemeH Shomaly alkatearen aginduz eta oneretxiaz.

Orri-oinean sinatzailea eta data



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E8001078E100D1L6B7C9G2V9

Sinadurea eta data

MIREN KARMELE MUÑO A ARRIGAIN-Idazkari akzidentala - 30/07/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 01/08/2024

EXPEDIENTE ::
2024IDA_ERA_0201

Fecha: 19/06/2024

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

CSV: 07E8001078E100D1L6B7C9G2V9

